



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

AKADEME

**UPV/EHUko
emakume akademikoen
lidergorako programa
Programa para el
liderazgo de las
académicas de la UPV/EHU**

**Berdintasunerako zuzendaritza /
Dirección para la Igualdad
Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua /
Servicio de Asesoramiento Educativo
UPV/EHU**





AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. NORENTZAT DA	5
3. PROGRAMAREN HELBURUAK	6
4. EDUKIAK	7
5. METODOLOGIA ETA FORMATUA	8
6. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK	12
7. HAUTAKETA IRIZPIDE OROKORRAK	12
8. EBALUAZIOA ETA AKREDITAZIOA	13
9. DATUAK	15
10. AZKEN XEDAPENA	14

UPV/EHUko emakume akademikoen lidergorako programa

SARRERA

UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. planak (2019-2022, 2023an luzatua) konpromiso eta ekintza batzuk ezartzen ditu genero ikuspegi integratu bat zabaltzeko unibertsitate jarduera guztietan (prestakuntza, ikerketa, gizartearekiko harremana, pertsonak eta gobernantza eta baliabideak). Planaren 5.3 puntuak dioenaren arabera, UPV/EHUren erronka da *Unibertsitateko lidergo postuetan eta gorenko agintaritzetan emakume gehiago izatea sustatzea (emakumezko katedradunak eta irakasle osoak, emakumezko ikertzaile nagusiak proiektuetan eta ikertaldeetan, emakumezko goi mailako kargudun akademikoak).*

Berdintasunerako Zuzendaritzak urtero argitaratzen duen [*Berdintasuna zenbakitan*](#) izenburu duen 2020ko txostenaren arabera, Ikertzaile Nagusietan eta Tesi Zuzendaritzetan emakumeak ez dira %40ko parekidetasunera iristen. Katedradunen arloan, berriz, emakumeen presentzia %25 ingurukoa da. Jakintza esparruei dagokienez, emakumeen presentzia orokorrean baxua da alor maskulinizatuetan, ingeniartzetan bereziki.

UPV/EHUk, euskal unibertsitate publikoa den aldetik, bere gain hartzen du berdintasuna lortzeko erantzukizuna, eta uste du honako honek izan behar duela horretarako martxan jarri behar diren politiken helburuetako bat: hots, berdintasuna egiazkoa izatea rol akademikoen barne banaketan. Soilik neurri egokiak eta ondo artikulatuak hartuz gero izango gara gai kristalezko sabaia hausteko eta, ondorioz, emakume akademikoek rol horietara iristea eragozten dieten kultur, harreman eta botere faktoreak berbideratzeko.

AKADEME, UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko prestakuntza eta laguntza programa bat da, helburutzat duena emakume akademikoen lidergo ahalmena eta autolidergorako trebetasunak garatzea, erantzukizun postuetara iristen eta postu horietan irauten laguntzeko, irakaskuntzan, ikerketan eta transferentzian. Eraitza gisa, laguntza sare bat sortzea espero da, emakume akademikoen artean: alde batetik, kezkak, esperientziak, arrakastak eta zailtasunak partekatzeko; bestetik, elkarri laguntzeko modua emango duten harremanak ezartzeko, erantzukizun postuetara iritsi eta postu horietan irauteko.

Programak efektu biderkatzaile bat eragin nahi du UPV/EHUan, eta jarraipen bat izateko asmoz sortu da.

NORENTZAT DA

UPV/EHUko hiru campusetako emakume akademikoentzat, prest daudenak beren gain hartzeko lidergo akademikoko funtzioak eta erantzukizun karguak.

Jada erantzukizun karguetan dauden emakume akademikoentzat, lidergo ahalmenak hobetzeko.

Zeintzuk diren erantzukizun postuak:

Ikerketa proiektuen zuzendaritzak (IN)
Master eta doktorego programen zuzendaritzak
UPV/EHUko ikastegietako zuzendaritza eta dekanoko taldeak
UPV/EHUko Gobernu Taldea (errektorea, Idazkaritza

Nagusia eta Errektoreordetzak)
Zerbitzu orokorretako zuzendaritzak
Campuseko zuzendaritza taldeak
Saileko eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuko zuzendaritza eta idazkaritza akademikoa

PROGRAMAREN HELBURUAK

Helburu orokorra:

Emakume akademikoen lidergo trebetasunak hobetzea eta laguntza sare bat eraikitzea, ahalduntze kolektibo bat bultzatzeko parteartzaileen artean, erantzukizun postuetara iristeko edo/eta postu horietan irauteko.

Helburu espezifikoak:

Konfiantza eta segurtasun giro bat sortzea ahalduntze kolektiboko prozesu bat martxan jartzeko.

Gaitasunetan eta tekniketan trebatzea emakume partehartzaileak, beren lidergo ahalmena hobetzeko aukera izan dezaten, beste pertsona batzuekin batera eraikitzeko eta taldeak zuzentzeko.

Sare bat sortzea emakume akademikoen artean, kezkak, esperientziak, arrakastak eta zailtasunak partekatzeko, eta laguntza harremanak eta hitzarmenak ezartzeko, helburua izanik erantzukizun postuetara iristea eta postu horietan irautea.

Behar partikularrak eta komunak identifikatzea, programa berregokitu edo/eta jarraitzeko.

Zehazki, emakume partehartzaileek:

Beren lidergo estiloa eraikitzeko duten ahalmena identifikatuko dute.

Beren beldurrak eta uste mugatzaileak kudeatzen ikasiko dute.

Beren trebetasunak hobetuko dituzte komunikazio

eraginkorrago batlortzeko.

Xede bat eta ikuspegi partekatu bat ezarriko dituzte.

Gatazkak kudeatuko dituzte era eraikitzaile batean.

Harreman kontzienteak eta intentzionalak eraikiko dituzte, asmo partekatu baten zerbitzura.

Hizkuntza komun bat erabiliko dute, lagungarri izango dena estrategia partekatuak batera sortzeko.

Laguntza harremanak ezarriko dituzte emakume akademikoen artean, aurrera egin ahal izateko aukeren berdintasunean UPV/EHU.

EDUKIAK

Neure buruaren liderra izateko:

Indarguneak eta baliabide pertsonalak.

Nor naiz ni? Zer ematen dit nire barne orekak? Balio pertsonalak, ekintzarako motorrak.

Zerk mugatzen nau? Zerk urruntzen nau nire ahalmenetik? Beldurrak eta sineste mugatzaileak kudeatzea.

Entzutea, oinarrizko trebetasuna beste pertsonekin batera eraikitzeko.

Antolakuntzak eta taldeak, sistema motak. Nire rola (funtzioa) sisteman, eta haren mugak.

Beste pertsona batzuen liderra izateko:

Zertarako nahi dut izan liderra? Norantz jotzeko? Zein da nire ekarpena, proiektua, erronka, bete beharreko helburuak? Ikuspegi oso bat lantzea.

Zer harreman ezarriko ditugu gure artean ikuspegia gauzatzeko? Harremana diseinatzea era kontziente eta intentzionalan.

Konfiantza izatea eta eskuordetzea versus kontrolatzea eta nik neuk dena egitea. Nola sortzen da konfiantza? Eman eta jasotzea, feedback eraginkorra. Mugak jartzea, "ez" esatea, eskaerak egitea.

Harremanen toxinak eta haien antidotoak.

Gatazkak kudeatzea era eraikitzaile batean.

Harremanak positibizatzea eta interakzio negatiboak murriztea.

Ahalduntze kolektiborako laguntza sareak sortzea

Lan egitasmo indibiduala.

Nola jarraituko dugu? Zer behar dugu emakume batzuek besteengandik emakume akademikoen presentzia areagotzeko erantzukizun postuetan?

Laguntza eta truke sare bat sortzea parte hartzaileen artean.

Edukien proposamen hau aldatu ahal izango da, lehen saioan eginiko diagnostikoaren arabera eta kontuan harturik prozesuaren bilakaera

METODOLOGIA ETA FORMATUA

Programa guztiz praktikoa da; coaching teknikak baliatuz, honako hauek konbinatuko ditu:

Aurrez aurreko saioak ikasgelan.

eGELApi online prestakuntzarako plataforma.

Saioen arteko atazak, ikasitakoa praktikan jartzeko.

"Eginez ikastea" ikaskuntzaren ikuspegia proposatzen da, esperimentazioan, autogogoetan eta bateratzean oinarritua; modu orekatuan konbinatuko dira teoria, bizipena eta praktika. Horrela, ikaskuntza egokitu ahal izango zaie partehartzaile bakoitzaren premiei eta lidergo moldedesberdinei.

Salo motak	Jarduerak	Partehartzailearen denbora ¹
1 saloa: osokoa	<ul style="list-style-type: none"> - Programaren eta lan moldearen aurkezpena. - Proposatzen den lidergo mota. - Partehartzaileen esperientziak lidergo rolak garatzeko orduan. Oztopo eta zailtasunak. - Eragin zirkuluak. 	5AA
2, 3, 4, 5, 6 eta 7 saloak. Campuska deszentralizatuak	<ul style="list-style-type: none"> - Arlo akademikoetan beste pertsona batzuk duten lidergoa ikasteko jarduerak. - Aurrez aurrekoa ez den online lana aurrez aurreko saloan eginiko lanaren inguruan (entregak data itxtan). - Taldekako feedbacka salo bakoitzean. 	30AA + 10EAA
8 saloa: osokoa	<ul style="list-style-type: none"> - Eginiko ikaskuntzak eta banakako ekintza planak. - Babes sarearen aurkezpena eta ondorengo urratsak. - Balorazioa eta amaiera. 	5AA

Online lana euskaraz egiterik egongo da, baita plataformaren dinamizazio eta animazio lanak ere. Era berean, saioan egingo diren atazak nahiz erabiliko den materiala elebidunak izango dira.

Programan onartuak izan ondoren, galdeketa bat bidaliko zaie parte hartzaile guztiei, ingurune digital baten aurrean dituzten interesei, gaitasunei eta motibazioei buruz, atazen abiadura eta eskakizun maila egokitzearen. Galdera bat sartuko da parte hartzaileek eGELApi plataforman harremanak zer hizkuntzatan (gaztelania edo euskara) izan nahi dituzten jakiteko. Lehenetsuna duen hizkuntzaren irizpidea erabili ahal izango da online lantaldeak osatzeko.

¹ Aurrez aurreko orduak (AA) eta aurrez aurrekoak ez diren orduak (EAA)

Saioen arteko jarduerak eta atazek instrukziozko diseinu bat izango dute, ibilbideari egokitua, baita eduki gamifikatuak ere, jarraipena egin ahal izateko eta diseinuan definitutako mugarrietan oinarritutako partehartzea eta ikaskuntza frogak erakusteko. Ikaskuntzaren ikuspegi konektibista eta konstruktibista gune honetako gako izango da.

Arreta eskainiko zaie partehartzaileei jardueren ulermena, eta atazen entregan eta partehartzearen jarraipena errazteko. Euskarri bat izango dute eskura zailak tekniko eta metodologikoak argitzeko, gehienez, 24 orduko erantzun epearekin, asteburuan izan ezik.

Diseinuaz eta alderdi digitalaren garapenez arduratuko den pertsona hasierako eta amaierako saioetara joango da.

1. SAIOA OSOKOA

- Partehartzaileen aurkezpena
- Programaren aurkezpena eta Moodle
- Lidergo eredua
- Zailtasunen diagnostikoa
- Eragin zirkuluak

2. SAIOA
Nor naiz ni?

3. SAIOA
Nola mugatzen dut nire burua?

4. SAIOA
Beste pertsona batzuen liderrazitatea

5. SAIOA
Ataza

6. SAIOA
Harremana

7. SAIOA
Ataza eta harremana

1 ATAZA

2 ATAZA

3 ATAZA

4 ATAZA

5 ATAZA

10 ONLINE LAN ORDU: MOODLE PLATAFORMA

- Ataza jarraipena eta feedback kolektiboa, taldeka
- Saioan erabilitako materialak
- Storytelling
- Saio bakoitzarekin lotutako dokumentuak eta interesa duten bideoak
- Online ebaluazioa egiteko galdeketa

8. SAIOA OSOKOA

- Laguntza sarea
- Nola jarraituko dugu?
- Ikaskuntzak
- Ekintza planak
- Prozesuaren balorazioa
- Amaiera

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

UPV/EHUko emakume irakaslea edo ikertzailea izatea.

b) Partehartzaileek saio guztietara joateko eta aktiboki partehartzeko konpromisoa onartuko dute, baita saioen arteko atazak egiteko konpromisoa ere.

e) Lehentasuna izango dute a) eta b) puntuak betetzen dituzten emakume akademikoek, lanera itzultzen direnak mendeko pertsonen arreta eskaintzeagatik eginiko etenaldi baten ondoren.

d) Behin programa amaitu ondoren, ebaluazio positiboa izan duten partehartzaileek beste emakume akademiko batzuen prestakuntzan laguntzeko gonbita jaso dezakete, Akademe programaren etorkizuneko deialdietan parte hartuz, sentiberatze jardunaldietan haien esperientziaren berri emanez edo antzeko prestakuntza programetan beste partehartzaile batzuei eskainitako mentorizazioaren bitartez.

HAUTAKETA IRIZPIDE OROKORRAK

Eskaera kopurua eskaintzen diren plazak baino handiagoa izanez gero (30 guztira), sartzeko irizpide gisa mantenduko dira:

a) Plazen % 70 baldintzak bete eta erantzukizun kargu bat ez duten emakume akademikoentzat izango da, eta plazen % 30, jadanik kargu mota hori dutenentzat.

b) Eskaeren arteko oreka, lurraldeen eta tituluen aniztasuna bermatzeko.

e) Pertsona mendekoak zaintzeko baimen baten ondoren itzultzea.

Eskaerak baremo honekin baloratuko dira:

Emakume IIP iraunkorrak: 60 puntu.

Euskara jakitea: 20 puntu.

Erantzukizun karguak eduki izana: 10puntu.

Hala behar izanez gero, eskaerak banaka aztertuko dira eskatzailearekin batera.

Hautaketa AKADEME programako jarraipen batzordeak egingo du, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordea buru duela eta hauek osatua: Berdintasunerako zuzendaria, SAE/HELAZeko zuzendaria eta UPV/EHU Berdintasunerako Batzordeko hiru pertsona.

EBALUAZIOA ETA AKREDITAZIOA

Programaren fase bakoitzean, eginiko lanari buruzko txosten bat egingo du bideratzaileak, balorazio positibo edo negatiboa adierazteko eta justifikatzeko.

Aurrez aurreko saio guztietara etorri diren, nahitaezko atazak modu egokian egin dituzten eta foroetan eta aurrez aurreko saioetan aktiboki parte hartu dutenek 4 ECTSko ziurtagiri bat jasoko dute.

DATUAK

Iraupena

Prestakuntza prozesuak 40 orduko aurrez aurreko prestakuntza eta 10 orduko online lana izango du.

Saio kopurua

2 osoko saio eta 6 saio campus bakoitzean.

Lanaldia

2024ko urtarrilaren 31tik maiatzaren 28ra.

Ordutegia

9:30-14:30

Datak eta tokiak

SAIOA	DATA	
	1 TALDEA	2 TALDEA
1 Saioa: Aurkezpena eta hasiera	Osoko saioa 30 partehartzaileekin: 2024ko urtarrilaren 31an . Liburutegiko eraikineko 7 aretoa. 1. Solairua. Leioa	
2 Saioa	2024/02/06 Liburutegiko eraikineko 6B ikasgela. 1. Solairua. Leioa	2024/02/08 Carlos Santamaria Zentroko 4. Ikasgelan. Donostia
3 Saioa	2024/02/27 Liburutegiko eraikineko 6B ikasgela. 1. Solairua. Leioa	2024/02/29 Carlos Santamaria Zentroko 4. Ikasgelan. Donostia
4 Saioa	2024/03/19 Liburutegiko eraikineko 6B ikasgela. 1. Solairua. Leioa	2024/03/21 Carlos Santamaria Zentroko 4. Ikasgelan. Donostia
5 Saioa	2024/04/09 Liburutegiko eraikineko 6B ikasgela. 1. Solairua. Leioa	2024/04/11 Carlos Santamaria Zentroko 4. Ikasgelan. Donostia
6 Saioa	2024/04/23 Liburutegiko eraikineko 6B ikasgela. 1. Solairua. Leioa	2024/04/25 Carlos Santamaria Zentroko 4. Ikasgelan. Donostia
7 Saioa	2024/05/14 Liburutegiko eraikineko 6B ikasgela. 1. Solairua. Leioa	2024/05/16 Carlos Santamaria Zentroko 4. Ikasgelan. Donostia
8 Saioa Azkena	Osoko saioa 30 partehartzaileekin: 2024ko maiatzaren 28an . Liburutegiko eraikineko 7 aretoa. 1. Solairua. Leioa	

Partehartzaile kopurua

30 partehartzaile, 15 partehartzaile dituzten 2 talde; talde bat Bizkaiko campusean eta beste bat Gipuzkoako campusean.

Hizkuntza

Ikastaroa gaztelaniaz emango da eta online lana nahiz euskaraz nahiz gaztelaniaz egiterik egongo da.

Izena emateko epea eta nola egin

Izena emateko epea 2023ko urriaren 13tik azaroaren 24ra zabalik egongo da, biak barne. Horretarako, <http://www.ehu.eus/akademe> eskuragai dagoen AKADEME eskaera-inprimakia bete eta bidali beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Interesatuek deialdiaren, deialdiko oinarrien eta deialditik eratorritako administrazio egintzen aurka egin dezakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1ko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen legean ezarritako epean eta moduan.

Leioan, 2023ko urriaren 20an.

ELENA LEIÑENA MENDIZABAL
BEDINTASUNERAKO ZUZENDARIA